

VIA-CRUCIS BASCONGADO.

Entre los muchos *Via-Crucis* escritos en lengua euskara, no conocemos ninguno tan notable como el que escribió un ilustrado sacerdote, D. Francisco Ignacio de Jauregui, Beneficiado de Zaldivia, patria de bascófilos tan notables como Iztueta y Lardizabal, y que fué impreso por vez primera en San Sebastian el año 1844.

Su bascuence es puro y gallardo, la diccion tan hermosa como afluente, los giros verdaderamente euskaros, y la pintura de los dolores de Jesús y de su Santa Madre en el Calbario está hecha de mano maestra.

El *Via-Crucis* del Sr. Jauregui es, pues, notabilísimo por todos conceptos, y creemos prestar un servicio á las letras bascongadas reimprimiéndolo de nuevo y dándole cabida en las páginas de la EUSKAL-ERRIA, entre los originales propios de Semana-Santa.

Hé aquí este hermoso trabajo:

JESU-KRISTO, GURE JAUNAREN, GALBARIOKO BIDEA,

EDO

BERE PASIO SANTUAZ OROITZEKO ERA EGOKIA.

LENENGO ZIÑATU ETA «NERE JESU-KRISTO JAUNA» ESAN ONDOREAN,
EGITEN DA

ESKAINZA.

Nere Jaungoiko guztiz ona; Galbarioko bide santu onetan ematera goazen pausoak izan bitez, zure seme Jesus maiteak gurutze pisuarekin Jerusalemendik mendilatz artara egin zituanen izenean; eta daukagu asmo sendoa, Aita Santuak debozio au biotzetik gogoz egiten dutenentzako esleituac dauzkan indurentzia edo barkazioak irabazteko, eta jarduera santu onen bidez iristen degun guztia, izan bedi purgatorioan dauden arima batez ere guk zorrik geiena diote gunen alde, geuren bekatuen eta oen zorren barkazioarako, eta zure gloriarik andienarako. Amen.



Lenengo geraldia.

Eriotzako sententzia gure Jau-nari eman zioten lekua.

Gogora ekarzu, nere arima, nola judu gogorak kalerik kale, echerik eche, emen zorotzat, an farragarritzat, munduko gizonik errebesena ta gaizkille-ena bazan bezala erabilliaz gure Jesus maitagarria, azoteaz zeaturik ezurrak agertzeraño urratu, ta azkenean berendurik ifini zuten Pilatos, gurutzean bizia kentzeko sententzia ematera. ¡O, guganako dezun amodio aundiaren bidez ainbeste neke portitz, eta oñaze samin eraman zinituen Jesus gozoa! ¿Zenbat bider zure amodioari egiazko naztasunarekin eranzun bearrean, eman izandet nik ere Zu gurutzean ilzeko sententzia, nere gogo gaizto, eta griña charrak betetzeagatik? ¡A nere gastetasunaren oroipen lotsagarri tristea! ¡O denbora artako egun zorigaiztokoak! ¿Zertan igaro nituen ezpada zorakerian eta bekatua bekatuari egozten? Eta, Jauna, ¿aztuak ote dauzkatzu zuk, orduko nere bide bageko utsaldi iraingarriak? ¡Ezin dateke ori! ¡Ai nere eskerbagekeria, eta bekatu astunak, zeintzuk utzi zaituzten zu nere Jesus ona burutik oñetaraño zauri bat egiñik! eta ala ere, niri ongi naiaz ontzat daramaizkitzu guztiak. ¡O amodiozko jabe maitagarria! ¿Ez ote naiz ni bigundurik mugituko nere bekatuak gatik negar egitera, eta zu bear bezala amaturik ondo serbitzazera? Bai nere biotzeko, Aita maitea, bai berpertatik artzendet

asmo oso betea, ez geyagoren geyago bekaturik egiteko, eta zure laguntzaren bidez bizitza on batean irauteko; eta zerren oraindaño ainbeste bider iraindu edo ofenditu zaituran damu det, Jau-na, nere biotz guztitik eta urruki zaitez nizaz. *Aita gurea eta Abe Maria.* etc.



Bigarren geraldia.

Gure Redentoriari sorbaldan gurutzea ifini zioten lekua.

Nere arima ¿nai dezu ikusi zein andia dan Jesus maitagarriak zuri dizun amodiozko naitasuna? Entzun itzatzu bada, zure bekatuen zama edo gurutzea bere ganean artu zebanean esan zituen itz goiño oek. ¡O gurutze maitea esnago zerban! ¡O aspaldian chit gogoz nere Biotzaren erdian zarabilzadan sari onetsia! Atoz, atoz nigana, nere laztana, eta arnazazu zeure beso zabal orretan, zu bitarteko zerala pakeak egin ditzatan gizonak Aita Eternoarekin. Zugan illtzeko jachi nintzan Zerutik, eta jantzi nintzan aragiz. ¡O zenbat atsekabe ta neke gostako zaizkidan! Baña ez da ansi; zurekin garaitu bear ditut nere etsayak; zu, zu izango zera nere esleituai Paradisuko ate andiak irikitzeko gilltza nagusia, eta zugan arkituko dute bekatari gaiñoak nai bezalako laguntza ta gordelekua. Ekusten dezu, nere arima, Jesu-Kristo zure Egille, Errege, ta Erakusle edo maisua-ren umiltasuna eta pazienza bere nekerik andienen tartean; eta onelako leialtadearekin zuganako

amodio bero, bizi, gartsua, begien aurrean dakutsun ezkeroko ez dituzu bada eramango aren ize-nean, edo berari zor diozun naitasun andiari eranzuteagaitik, lurreko neke ta arrastakak eritasun ta atsekabeak, beartasun ta lazeriak, eta zure etsai guztien persegiteak? Bai, nere Jesus ona, eta pozik alere, zuk laguntzen dirazula nai nituzke gaurtik aurrera eraman pazienziarekin zuk bezala mundutarren bidebagekeriazko charkeri, iseka lotsagarri, eta gañerontzeko egikari kaltarkitsu guztiak, eta oraindano ez onela eramanaz damu det nere biotz guztitik; damu det, Jauna, zu ofenditua, urruki zaitez nizaz. Aita gurea, eta Abe Maria.



Irugarren geraldia.

Gurutzearekin Jesus lendabizi erori zan lekua.

Begira, nere arima, zure pecatuak nola ta zer moduz ipini duten Jesus maitea. Gurutzea sorbaldan arturik, abiatzen da Galbario bidean; bañan jai! bost milla ta geyago azotez gisa artan urratu, ta ainbeste odol bere gorputzetik isuririk, neketan gau guztia eta goiza igaro ondoan ¿nola igo alzitekean Jesus maitagarria Galbario mendira estropozoka ta erorka baizik, oñkada edo pauso bat bakarra ere aurrea ezin emanik? Bazekusten borrero biotz gogor aiek, gure Salbadorea gurutzetzar astunaren pisutasunak benzuturik lurrean auspez zetzala, eta ala ere, andik alchatzen lagundu bearrean, erasotzen diote berriro illetik tira-

ka, golpeka ta ostikoka. ¡O biotz gogortasunezko odolgirodi izugarria! Eta ¿zer deizkiotzu zuk, nere arima? Zure Jauna ta jabe egiazko bakarra ostikopean gisa orretan ikusirik, zabilza zu arduraga bage munduko atsegintasun likits gugari lizun, andina, artotasun eta erokeria galgarrien billa? ¿Noiz artean ibilli bear ote dezu gaiso urrikarri orrek, burutik jausia bezala, emengo gauza erkin char kaltarkitsuen ondoren? ¿Noiz biurtuko ote-zera arren zuri jarraika zure deiez beti dabillen eta dagokizun eta bereganatu nai zinduzkian Jaungoiko maitagarriagana? ¿Ez da zuretzat ondra ta dicharik asko aren seme izatea? ¡Bai, nere Jesus ona! Batere luzatu bage nai det berpertatik nere gaiztakeria guztietatik irtenik irauli zugana ¡o edertasun paregabea! Eta zein berandu ezagutu zaituran. ¡Ai, Jauna! Eta ¿nik zu utzi ainbeste bider? Izandu naiz, bai, ni noizbait zure etsairik andienetatik bat. ¡Ai nere nekea! ¡Ojala zu atsekabetu baño lenago ill banitz milla bider! Zure onegitasun bukaerarik bagekoari begiratuta damu det, Jauna, zu ofenditua, urruki zaitez nizaz. Alta gurea, eta Abe Maria.



Laugarren geraldia.

Jesu-Kristok bere Ama guztiz Santea topatu zeban lekua.

¡O zein andiak, gogorrek eta garratzak izango ziraden Jesus onarekin bere Ama maitatearen aldi onetako neke ta oñaze portitzak! Abiatzen da Ama Birjiña

bere Seme-aren billa, eta topatzen du Jerusalengo karrikan gurutze pisu bat sorbaldan esarririk, lapur birekin daramatela, oen erdian ill-erazotzeko. Badarraika ondoren, nai lioke itzegin ta adiarazi bere neke eta naibage izugarria; bañan, semearen egoitza edo erretrato negargarriari begiratuta, gelditzen da korde-bage-turik izerdi otzak emanta illa bezala. ¡Ai orduko aen bien atsekabe andi, eta lazeriaren mingarria! ¿Nork bear bezála esan ta adiarazi Ama Seme-en une artako neke ta naibageak? Aen mingañak arkitzen baziran ere mututuak, bata besteari itzegiteko kemen bage, esango zion Seme onaren biotzak Ama maiteari. ¡A nere Ama onetsia! ¿Zertako etorri zera onara? Zure neke, ta naigabeak geiagoturik anditutzen dizkidate nere atsekabe ta oñazeak, eta zure negar gazi samiñak erdiraturik kiskaltzen dute geiago ta geiago nere barru guztia. Zoaz arren emendik lenbait len, nere Ama gozoa; biur zaite zeure eremu edo orazio-tokira; alabañan ere ez dirudi ondo, eta ez dago-kio ere zu zeran bezalako Birjiña garbi bati, gizon illtzalle ta lapur añeneko gaiztoen artean egotea. Orra, nere arima, orra zer neke ta naigabeak zugaitik igaro zituzten Jesus onak, eta beraren Ama maitatiak. Eta zu ¿etzeroa kupitzen? ¿Etzaizu biotza bigundu ta erdiratzen? Egizu, egizu negar benazki biotzetik, esaten dezula, damu det, nere Jaungoiko ona, zu ofenditua, urruki zaitetz niaz. *Aita gurea, eta Abe Maria.*



Bostgarren geraldia.

Simon Zirenekoak gurutzea eramaten Jesu-Kristori lagundu zion lekua.

¡Ai nere arima gaísoa! Bazene-ki ondo zure bekatuen astuntasunak zenbateraño nekatu-rik auna-tu zuten Jesus maitagarria, eta gogoan bazenerabiltza beti jaun andi ark negargarritzko geraldian onetan igaro zituan ikaragarritzko atsekabe, neke ta oñazeak; zein pozik eta atsegintasun andian eramango zintuzkean emengo lazeri gaizto eta ez-bearrik gogorrenak ere. Gurutze pisu ark sorbaldan zauri andi bat iriki, eta ozta zegoan bere oñen gañean Jesus ona, eta Galbarioko mendira iritsi baño len, ill-otza geldi zekioten beldurraz, eman zioten Juduak gurutzea eramateko laguntzat Simon zeritzan Zireneko gizon bat. Bai, esaten du Jesus maitagarriak, bai, gurutzezko edo nekezko toki guztiz latza da nik daramadan bidea, eta gurutzea sorbaldan dabela jarraitu bearko dit niri ondoren, nerekin batean Zerura nai dabenak. Eta zuk, nere arima ¿nai dezu bizi zeure atsegina, ain aísa ta arin, bide lasai erosoetan zabiltzala batere nekatu bage, eta naibagerik gichiena ikusi orduko eroa bezala asaldatzen zerala, eraman nai ez dezularik zure Jaunaren izenean, izan alditekean atsekabe ta beartasunik chikiena ere? ¿Zer bada? Jesusek ainbeste amodiozko naitasunekin erakutsi zizun Zerurako bide zuzena utzirik, nai dezu sartu, ta ibilli zeure. gogo gaizto-

ak ichuturik zaramazkieni lokazti zabal likitsgalgarrietan? ¡Ez nere Jesus maitagarria, ez orrelakorik! Zuk erakutsi zenidan bide garbi zuzenean ibilli nai det bizi naizan arte guzti guztian; eta lenagotik au ez egiña, damu ta damu det, Jauna, nere biotz guztitik, ainbeste bider ofenditu zaituralako ain bide bagelkiro urruki zaitez nizaz. *Aita gurea, eta Abe Maria.*



Seigarren geraldia.

Beronika zeritzan emakume batek gure Jesus maiteari arpegia garbitu zion lekua.

¡O zein ondradua, opaia, ta sari-emalle prestua dan gure Jauna, bera ondo maitaturik leialkiro serbitzatzen dutenentzako! Beronika deitzen zitzaion emakume ark etzekien Jesu-Kristo nor zan; bañan ikusi zebanean, nola zaramaten guztia odoldurik gurutzean illtzera, urrukitu zan chit, eta biotza ainbesteraño bigundu zitzaion, non jendeartetik sartu, ta garbitu zion bere arpegia zapi batekin, zeñetan leialtare onen saritzat utzi zion Jesus onak bere arpegiko antz iruidun oso bete betea, eta biotza bereganako amodioz josirik. Enzun ezazu, nere arima, ¿ez dezu bada zuk ere serbitzatuko gogoz Jaun bat ain ona, sari-emallea eta guztia dezakeana? ¿Ez ote dezu artuko naitasun andiarekin Jesusek ematen dizun gurutze ariña, edo aren izeneko zerbait neke aisa egin dezakezukeana, beti betiko ondusun andiak irabazteagatik bedere? ¡Ondo nonbait lotua, lililura-

tua, eta zoratua zauzkate lurreko gauza erkin char galgarriak! Ea, bada, iriki itzazu bein edo bein zeure begiak eta oraindano egingdako utsegite guztien damu egiazko bat artu, ta berriz bekaturik ez egiteko asmo osoarekin esazu biotzetik, damu det, nere Jaungoiko ona, zu ofenditua, urruki zaitez nizaz. *Aita gurea, eta Abe Maria.*



Zazpigarren geraldia.

Jesus gure Eroslea edo Redentorea gurutzearekin bigarren aldian erori zan lekua.

Jerusalendik irten ta Galbarioko mendira zeramatelya gure Salbatzalle maitea gurutzearen asuntasun andiak bigarren aldian botaerazo zeban lurrera; eta andik nolapait bederik neketan jai ki zanean, begiratu zion Jerusalemgo Uriari, negar ta negar egiten zebala benazki. Bazekien alabañan ere, zer gertatu bear zitzaion zorigaitzoko Uri doakabeari. Ikusten zeban argiroki alper alperrik izango ziradela, askorentzat beintzat, len ta gero gizonaren onerako zeramatzkien neke ta arrastaka izugarriak. Munduko bekatu guztien ordaña ainbeste gostarik Jaungoikoaren justiziari eman, edo gaizkille guztien zorrak ain garesti zearo ta osotoro berak nozitu, eta alaere asko ta asko izango zirala; jentil edo fedebageko-etatik ez ezean Kristau egindakoen artean ere, pasio samin garratzeko odol-isurtea ezertan eukiko etzuten ezker gaiztokoak. Anitz ta anitz izango ere zirala, aren lege santua milla

bider ausi, ta ostikopean erabilliko zutenak, eta beren nai izatez Luzifer gaiztoaren morroi, ta mendeko billau egiñik, Infernua su ta gar kiskaltzen sekula guztian egongo ziranak. Au guztia gogoan zeukan bada Jesus maitagarriak, eta oroipen bera zan aren miñik gogorrena, ta illtura-rik andien andiena. ¡Ai nere arima! bekatu bat bakarrarekin galdu zentzake zure Jaungoiko ona, eta zeure nai izatez, edo zeure erruz, infernuratu zindezke beti betiko. Eta egia au jakiñik ¿bizi zera ain lasai ta ardura bage? ¡O, fedearen argala! Eta bizi-modu gaizto orretan iraun, ta zeure burua sekula betiko galdu beldur-rean ain perill-urkoan agoteari ondo derizkiotzu? ¡Ez, ez, nere Jaungoiko maitea! Zuk egin ninduzun zeuretzat izateagaitik; zu lurrean serbitzatzeko, eta Zeruan doatsueraz beterik beti ta beti zure gloria andiak gozatzeko. Ona bada, Jauna, ona nere biotza prest, zure naiera santua gogoz egiteko. Ez geiagoren geiago bekatu-rik; zure ontasuna ain andia dalako, damu det, Jauna, zu ofenditua, urruki zaitez niaz. Aita gurea, eta Abe Maria.



Zortzigarren geraldia.

Jesus maitatiak Jerusalemgo alabai itz egin zien lekua.

¡O Jaunaren amodiozko ontasun bukaerarik bagekoa! Aultasunaren aultasunaz, munduko bekatuen pisu andia ezin irozotuz aunaturik, kemen bage, guztiz nekatua, zijoan Jesus Galbarioko bide latz gogorrean, eta alaere,

bere naibage ta eritasun portitzak arras azturik, edo gaiztratatu ez bazegoen bezala, jarri zan Jerusalemgo alabai zer egin bear zuten erakusten. ¡Ai nere emakumeak! esan zien, bekatuagaitik, bekatuagaitik eginbear dezute negar, eta ez nigaitik, zerren bekatuaren sugarrak zuaiz edo arbola eze au ain erraz erretzen badu ¿nola ez ditu kiskalduko berotasun andi orrek egur igarrak? Esan balu bezala. Baldin Aita Eternoak ain gogor artzen badu bere Seme maitea besteren bekatuagaitik, ¿zer izango da sinismenik eta legerik bake Jaungoikoa ofenditzen beti bizitu dan bekatariatz? ¡Ai nere arima! Zer ta nolako zemaya edo kastigu gogorraren begira zauden, baldin Jaungoikoak denpora ematen dizun bitartean, ondo ballatzen zerala, egiten ezpadezu zeure bekatuen miñaria edo penitentzia egiazkoa. Ea, bada, lurreko andiuste, arrotasun, eta zorakeria guztiak berperstatik alde bat utzirik, artuezazu, bai, arren, artuezazu Zerurako bide zuzena, eta biziera santu bat egiteko asmo osoarekin, esazu biotzetik damu det, nere Jaungoiko egiazkoa, zu ofenditua, urruki zaitez niaz.

Aita gurea, eta Abe Maria.



Bederatzigarren geraldia.

Jesu-Kristo irugarren aldian erori zan lekua.

¿Zer zautza or, ó nere Jesus ona? Zerk zauzka irugarren aldian gurutzetzar orren azpian? ¿Zerk, Jauna, ezpada nere bekatuen astuntasun pisuak? ¡Ai nere

arima gaisoa! Zure Salbazallea eta Aita maitatia ainbeste neke ta atsekabe zugaitik igarotzen dituela ikusi, ta ¿nolaez da zure biotza, baldin aragizkoa bada, bigundurik kupidaren kupidaz erdiratutzen? ¿nola zaude ain arduragichirekin, arririk zaillena baño ere gogorrago ta zekenago egiñik, zure bekatuen kate lodi portitza urratu bage? ¡Ai ezagüera gaiztoko ekergabea. Baldin egin zeban baño gichiago zugatik nozitu izan balu Jaun andi ark, esan zentzakean benturaz, etziniola zor chit asko, bañan dakizularik argi ta garbi Jaungoiko egiazkoaren seme bakarrek ni salbatzeagatik egin izan zebala ainbeste neke ta arrastaka ¿izango dezu arpegirik eta lotsarik, zor diozuna ukatzeko ez ezik chint bat erantzuteko ere? ¿Nola dijoazkitzu bada gauak eta egunak, asteak eta illak, urteak eta urteak, berari zor diozunaz oroitubage, eta ain lotza guchirekin ausardiaz zabilzala beragandik igesi bide galgarritan? ¡Ai nere Jesus biotzekoa! Indazu arren zu billaturik ezagutzeko beardedan laguntza ta doaia, bada gaurtik aurrera nai det zure ondoren ibilli, eta ematen dizut itz egiazkoa, geiagoren geiago, bizi naizan arte guztian, ez bide gaiztoetan jarteko; lenago bearko det ill, zu atsekabetzera berriz biurtu baño; damu det, Jauna, nere biotz guztitik zu ofenditua, urrukizaitzez niaz.

Aita gurea, eta Abe Maria.



Amargarren geraldia.

*Jesu-Kristori bere soñekoak
kendu zioten lekua.*

Gero-enean ere, nolapait bederik, irichi zan Jesus maitagarria Galbarioko mendi latz artara; eta ezin geiagoraño nekaturik chit aunatua bazegoan ere, etzioten eman atsedeteko lekurik borrero gogor aiek, baizikan berealaishen ta prest beresoñekojanzi guztiak kupidarik bage urtika edo tiraka kendurik, odola chirrian zeriola ipini zuten larru gorrian, nork daki zenbat jende begira zegozkiola: eta artu-erazo zioten gizonari sekulan emanzaion lotsarik andiena. ¡O Jaungoiko mirarit-sua! ¿Nork ekusi du onelakorik! ¿Larrugorrian zeruetako Errege, ta mundu osoaren Jabea? ¿Larrugorrian, Aita Eternoaren Seme bakar guztiz maite maitagarria, egunaren erdi erdian, ain toki agirikoan, eta ainbeste gizon ta emakume lotsa galdutakoen aurrean? ¿Larrugorrian Zeru ta lurrrak ezerezetik egin dituan Jau-nik aberatsen ta altsuena? Eta, ¿zergaitik? ¡Ai nik, esker gaiztoko doakabe onek, ain lotsabagekiro nere buruari griña charren bidez eman diozkaran atsegintasun lizun likits galgarriak gaitik: eta nik ain ezer gichiren truke galdu neban esker andiko soñeko eder aberatsa nigana osterairaultzazo naiaz. ¡Ai nere bekatu itsusi zikin loitsu madarikatuak! Zuek zerate bai, zuek zerate zori gaiztoan agertu ziñatenak nere arimaren gudagarriak, eta Jesus maitatiaren borrero gogorrek.

Baldin berriz etorri bearak ha-
zeuntezkeke, etzenduketeke ni-
gan arkituko ez lekurik chikar-
rena ezen laguntzarik chikien
chikiena ere. ¡Ai nere Jesus guz-
tiz ona! ¡Ai nik denbora batean
orain bezala ezagutu izan bazin-
dut, zein urruti egongo nintzan
zu atsekabetzetik! ¡Ai beti zu
amatzen bizi izan banintz! Damu
det, Jauna, milla bider zu ain sa-
rri ta bidebagekiro ofenditua, ur-
ruki zaitez nizaz. *Aita gurea, eta
Abe Maria.*



Amaikagarren geraldia.

*Jaungoikoaren Seme bakarra
gurutzean illtzez josi
zuten lekua.*

Baldin Jesus maitatiak, toki
onetaraño zeramazkien neke, ar-
rastaka, iseka, ta oñazeak bazira-
den ikusi ditugun bezin andi ika-
ragarriak, ¿nolakoak izango ote
ziran geraldí onetan nozitu zitu-
anak? Beazunarekin naastutako
edari guztiz samin garrats bat
emanta ondorean ezarri erazotzen
dute Jesus maitagarria borrero
odolgirodi gogorrek gurutzean;
josten dute illtze sendoakin za-
ñak eta ezurrak urratu ta triski-
llatuaz, eta agertzen da mundu
osoaren Egille ta Salbatzallea gu-
rutzetzar batean illzatua, eta la-
pur biren erdian. Ea, bada, nere
arima, alchatu itzazu ondo iriki-
rik zeure begiak, eta baldin bio-
tzak lagunzen badizu, ikusi eza-
zu nor ote dan, zer aridan edo
nola dagoan, orrako gurutze orre-
tan daukazu ori. ¡Ai au egoitza-
ren gogorra ta ikaragarria itze-
giten duela dagoen gizon oneski

batentzat! Orra nere arima, orra
zenbat estura larri, oñaze ta la-
zeri portitz daramazkien zure zo-
rren ordain daungoikoaren Seme
bakar egiazkoak. Begira egiozu
berriz ta berriz ere, eta ikusi eza-
zu oarrez ta artezaz ispillu biotz-
illturako orretan zein andiak eta
izugarriak diran zure bekatu li-
kits gaiztoen zorrak. Begira za-
iozu ondo ta aspertubage ezik, or
ikusiko dituzu argi ta garbi zure
zorakeria ta burubageetasunaz
egindako ibillera itsusien bidez
zereganatu dituzun sari lizun gal-
garriak zer ta nolakoak diraden.
¡Ai! ¿zer izango zan zuzaz, bal-
din zure arimako eritasunak bere
gain artu ezpalitu Jaun maitaga-
rri orrek! ¿Zer zor ez diozu, bada
zugaitik edo zuri dizun amodio-
agaitik ain bidebagekiro ta ichu-
ra charrean gurutzean illtzez jo-
sirik dagoen Jaungoiko gizon
orri? ¡O amodioaren geiegia! Eta
¿au guztia zenekiela egin izan di-
tuzu, zuk nere arima, ainbeste
bekatu? ¿Au guztia seguro daki-
zularik bizi zera zure gogo gaizto
ta griña charrak eskatzen dizu-
ten guzti guztia egiñaz ta ema-
naz? ¡Ai ori erakeriaren andia!
Edo ta zaude burutik arraz jauzia
edo dezu alzaiduzko biotza, edo
ta zera zeure burua infernuratze-
ko alegin guztiak egin nai ditu-
zuna, edo ez dakit zer dezun ta
zer asmo darabiltzun. ¿Noiz arte-
raño gaiño urrukarri orrek izan
nai dezu ain buru gogor ta esker
bagea? ¿Noiz asiko ote zera Aita
biotz bigundun aren amodiozko
naitasunari eranzunpidetzen? ¡O
nere Jesus guztiz ona! Zenbat eta
zenbat ote da, arren, nik zuri zor

dizurana! ¡A! ¡nork leukekean nik zuri egin dizkitzuran bide bageko eskerbagekeri itsuziai dago-kizten damu egiazko bat biotzean, ai Jauna! Aitortzen det, bai, biotzaren erdi erditik, zein gaizki erantzupidetu dioran nik zure amodiozko naitasun bukaera bagekoari. Bañan ¿zer egin alde-zaket nik? Emen nator bada gero-enean ere zugana. Bai nere Jaungoiko maitagarria, bai, nere bekatuen lotsaz begiak ezin argiturik eta damuz beterik, zure oñetara biurtzen naiz barkazio eske, eta artu nazazu arren zere-gana. ¡Ai zer dicha, ill banitz ni zu atsekabetu haño lenago. Damu det, Jauna, nere biotz guztitik zu ainbeste bider ofenditua, urruki zaitetz nizaz. *Aita gurea eta Abe Maria.*



Amabigarren geraldia.

Gure Egille ta Erosle aundia gurutzean etsai gaiztoak illtutzen lekua.

Irru ordur egondu zan Jesus ona gurutzean iltzez josirik. Andik eskatu zion Aita Eternoari bere etsai gaizgille guztien barkazioa. Itzegin zion bere Ama maite atsekabez naibagetuari Adierazo zeban bukatu zirala Eskritura Santeak eta Igarla edo Profetak aren pasioaren gañean anziñatik azaldu zituzten gauzak. Egin zebala osotoro bere gain artutako eginkizun andia, eta azke-nean egin zeban deadar andi bat, esaten zebala, Aita, zure eskue-tan lagatzen det nere espiritua, eta itz oek bukatzean illtzan gi-zona zan aldetik, bere burua ma-

kurturik eskuirontz. ¡Bai, nere arima! Illtzan Jesus ona, zu salbatzeagatik, edo zeruan zu beti beti bizi zintezan, eta baldin amodioari amodioa zor bazaio, zoazkio berpertatik esker onak ematera, eta agur umill gozo gozoak egitera. Orrenbeste, ta askoz gei-ago ta geiano zor diozu bai zuk Aita biotz bigun maitati orri; zoazkio, bada, zure bekatu guztien barkazioaren eske; orra non dezun, nai bezalako era, Jaun maitagarri orrekin pakeak ta adiskidetasauna egiteko; ez du, ez, zure albotik iges-egingo, baña ¿nola iges joan alдитеke baldin zugana-ko daukan amodio bero gartsuak lotu ta josirik badauzka beraren oñ ta eskuak, zerorrek argi ta garbi dakutsun bezala? Begira nola besoak zabaldurik dauzkan zu laztan gozo estu estuakin artutzeko, baldin biotzeko damuz beragana iraulten bazera. Begira nola, ta zenbateraño daukan askaturik bere saiets seyadu edosagradua, zu beregana artu ta etsai gaiztoen tentamendu charretatik seguru gordetzeko. Begira, azkenik, nola bere burua makurturik dei ta deika, beñere asper-tu bage, beti ari zatzun eta alai-sere zuk, nere arima, entzungor egiten dituzu mandatu ain gozo naigarriak, eta zabilta zure Jaun ta Jabearen izeneko neke arrastaka ta naibage guztien igesi. ¡Ai nere Jesus ona! ¡Ai nere Aita gozoa! Ez da munduan jaio, nik bezin gaizki zure amodio andiari erantzunpidetu izan dionik; eta orain leku ematen dirazun ezke-ro nere utseginak zuzentzeko ¿zertan eta zeren begira nago, it-

su, mutu, ta gor egiñik? ¡Ea bada, nere Jaun andia! biguñdu egidazu arren, izozturik daukaran biotz gogor au, zure amodioaren berotasunak urtu, ta negarrez begiak iturri hi egiñik maitatu zaitzaran beti ta beti. ¡O nere Jabe ona! ¡Zein zori onekoa nizakean ni, zu atsekabatu zaituralako miñez, bertan ta bereala illko banitz! Damu det, Jauna, nere biotz guztitik zu ofenditua, urruki zaitez nizaz. *Aita gurea, eta Abe-Maria.*



Amairugarren geraldia.

Jesu-Kristoren gorputza santua gurutzetik jetsi, ta Ama Birjinaren besoetan ifini zuten lekua.

Bukatu ziran bai, nere arima, bukatu ziran Jesusen eriotzarekin aren neke guztiak, bañan etziran ez aitu aren Ama maitearenak, baizikan ordu berpertatik ugaritu ziran ¿nork daki zenbaterano? Edozein guraso bereume maite bat ikusi ezkeroneketan arkitzen dala, joaten da lasterka berarengana, eta laguntzaren bat egiten diolako pozarekin, arintzen ditu zertcho bat bederik bere atsekabe astunak. Ordea Jesusen Ama maiteak ikusiarren bere Seme biotzekoa nekerik gogorren ta andienean, ezin lagundu zekioketan batere. Ikusten zeban nola zegoan Jesus gurutzean illa, burutik oñetaraño zauri bat egiñik, guztia ubeldu ta odolez betea. Nai zukean andik erachi, prestatu zan nolaerebait obiratzeko; bañan bere begietatik Seme maitearen gorputza kendu ezkerone, gelditzen zan illuntasu-

nezko bakardaderik urrukarie-nean; eta alan nai zegoela Jesus bere gurutzean, nai andik kendu zezatela, guztia zan Ama Birjinarentzat atsekabegaia, eta beraren biotza naigabez erdiraturik, arras urratzeko bidea. ¡Ai Ama guztiz ansiatua! Orduko zure illtura gogor eta atsekabe sauriu, esan alguztien gañekoak gaitik, edo gurutzearen oñean zure er-rayetako Seme maiteari begira eraman zenituen neke ta oñaze portitzen-gaitik, iritsi egidazu arren zure Seme onagandik, oraindano egin dituran bekatu guztien barkazioa. Niri etzait ori zor zergaitik zure Seme onetsia ainbeste bider atsekabetu deran. Egiazki alaisenda, baña ¡Ai nere bitarteko on guztiz leial gozoa! damu det anitz bera danagaitik, damu det bai, nere biotz guztitik, Jaungoiko maitagarria, zu ofenditua; urruki zaite nizaz.

Aita gurea, eta Abe Maria.



Amairugarren geraldia.

Jesusen gorputza berutu, lurpetu edo sepulturan sartu zuten lekua.

¿Nola geldituko zan Birjiña Ama-andrea, Jesusen gorputza lurpetu zutenean? ¿Zenbaterano illuntasun ta naibagerekin? ¡Ai ura despediraren mingarria! Besterik eziñak, eta bear bearrak aldondu zeban, bai, Galbarioko menditik, bere Seme maitea lurpean lagatuta, eta andik echerontzean ikusiko zeban biotza bete bete egiten zitzaiolarik, nola Judu gogorrek ostikopean zerabilten Jaungoiko gizonaren odola,

edozein gizonena balitz bezala, eta ikuskera mingarri onekin berrirotuko ziran neurriaz kanpora, Ama Birjiñaren neke ta naibage samiñak. ¡Orra, nere arima, zein garesti irten zitzaien Jesus onari, eta bere Ama maiteari zerurako eskubidea zuri iraultea! Aditu dez, bada argiro, zenbat illtura edo tormentu, neke ta arrastakaren bidez erosirik atera zinduen Jesus-Kristok etsai galgarrien atzazpar garratzetatik; eta zuk nere arima, ¿ez dituzu utziko oraindañoko galbide ta oitura gaiztoak? ¡Bai baldin badere!; bestela Juduak berak baño ere gogorragoa ta biurriagoa zera zu, zerren aiek etzuten gurutz-illtzatu bein baik, Jaungoikoaren Semea; bañan zuk bekatu egiten dezun aldi-oro daramazu berriro gurutzean jositzera, eta berriztatzen dituzu

aren Pasio Santuko, neke, arrastaca, ta illtura edo tormentu ikaragarriak. ¡Ai nere Jesus guztiz ona! Zein guchi oroitzen nintzan ni zuzaz, munduko atsegin lizun, eta zorakeria kaltarkitsuetan nentillenean. Eta orain berandu badere ¿ez ote naiz zentzatuko? ¿ez ote naiz emendik aurrera damutasun andi batekin zuzen eta garbiroki biziko zuri aserrerazo ta atsekaberik geiagoren geiago eman bage? ¡Bai, nere Jesus biotzekoa, bai! Zuri esker onak ematen biziko naiz garbiro gaurtik aurrera, zure laguntza ta goayarekin barean, eta zergaitik oraindañokoan bizi izan ez naizan ondo damu det Jauna, damu det nere biotz guztitik zu ofenditua; urruki zaitetz nitaz. *Aita gurea da Abe Maria.*

FRANCISCO IGNACIO JAUREGUI,

Zaldibiako Benefiziaduak, Euskaldunen onerako ipinia.

